

8. FUNTSEZKO JARDUERAK / ACTIVIDADES CLAVE

Gure lehenengo funtsezko jarduera proiektua funtzionatu dezan, azpiegitura izango da. Erabaki beharko dugu non ubikatu gure negozioa eta hori erabakita eraiki. Logikoki aireportuetan eraikiko dugu eta gure lehenengo aireportua Loiukoa izango da.

Bigarrenik, giza baliabideak. Haibat langile behar izango ditugu, hasteko harreragilea, bezeroekin egongo den langile bakarra izango da. Bi harreragile izango ditugu. Harreragileek, bezero bakoitzari dagokion logela eman beharko die, baita haiei kobratu eta erreserba bakoitza antolatu eta koordinatu. Gure beste langileak garbitzaileak izango dira, logelak garbi eta txukun mantentzen sahiatuko dira bezeroak era egokienan ikus dezaten.

Gainera gure langileen lana ere funtsezko jarduera bat izango da bezeroak pozik izateko. Haibat langile behar izango ditugu, hasteko harreragilea, bezeroekin egongo den langile bakarra izango da. Bi harreragile izango ditugu. Harreragileek, bezero bakoitzari dagokion logela eman beharko die, baita haiei kobratu eta erreserba bakoitza antolatu eta koordinatu. Gure beste langileak garbitzaileak izango dira, logelak garbi eta txukun mantentzen sahiatuko dira bezeroak era egokienan ikus dezaten.

Teknologia aldetik, eskaeren eta fakturazioaren sistema azkarra eskaini behar da. Hau da, internet bidez erreserbatzeko posibilitatea edo harreragileen erreserba sistema.

Logeletarako gaiak ere erosi behar dira (oheak, telebistak, etab.), eta hornitzaile egokiak aurkitu.

Ekoizpena ala zerbitzuen prestazioa?

Gure enpresaren jarduera zerbitzuen prestazioa da ez dugulako produktu bat saltzen ezta ekoizten, baizik eta zerbitzu bat eskaintzen dugu. Gure enpresak alokairu zerbitzua eskaintzen du, izan ere, gela bat eskaintzen dugu prezio baten truke, hau da, une horretan gela hori zurea da eta bertan nahi duzuna egin dezakezu, betiere enpresan ezartzen ditugun arauak errespetatuz.

Zerbitzu bat denez, bezeroak izan dezakeen edozein eragozpenen aurrean gure enpresak beti modurik eta hoberenean erantzuteko hartu beharreko neurriak hartuko ditu. Beti egongo da bezeroa piramideko mailarik altuenean, bezeroa baita zaindu beharrekoa enpresak aurrera jarrai dezan. Hau lortzeko ondorengo jarduerak burutuko ditugu:

Teknologikoki aldetik, eskaeren eta fakturazioaren sistema azkarra eskaini behar da. Hau da, internet bidez erresbatzeko posibilitatea edo harreragileen erreserba sistema.